

# “ETA MARIA HIRU ALDIZ AMAPOLA MARIA”

*María de la O Lejarraga, isil laneko emakumea*

## **AGERRE TEATROA**

María de la O Lejarraga (1874-1974). Pedagogia ikasi zuen, feminismoaren aintzindaria izan zen Espainian, Granadako diputatua 1933an, eta azkenik, Frantziara eta Argentinara erbesteratua.

María de la O ez da berez ezaguna, ez bada Gregorio Martínez Sierra senarraren izenaren pean. Izan ere, gizonak sinatu baitzituen Maríak bere bizitzan barrena idatzi zituen antzerki lan pila guztia, Manuel de Falla edo Usandizaga bezalako musikariei egindako libreto musikalak, artikulak feministak eta zinerako gidoiak. Gregorio eta Maríak berebiziko papera bete zuten Espainiako Modernismoaren aurrerabidean, antzerkiaren berrikuntzan eta musika panoramaren modernizazioan.

Isildua, erbesteratua eta ahaztua, María Lejarraga bere buruaz ahaztutako emakumea izan zen batez ere. Ziurtagiri, pasaporte eta bestelako dokumentu ofizialetan izan ezik, inoiz ez da bere izen-deiturekin agertzen. Bizitza pribatuan María Martínez Sierra izena hartu zuen. Sekula ez zitzaizkion batere axola izan ez arrakasta, ez txaloak ez fama.

Kezka politiko eta sozial sakonak zituen, Bigarren Errepublikan diputatua izan zen eta herri xehearengandik gertu egon zen. Horretaz gain, borrokolari konprometitua izan zen emakumeen eskubideen alde. Ikuskizunean, Mariaren ondoan poetaren irudia agertzen da, **Juán Ramón Jimenez**-engan inspiratuta sortua, lagun handia eta konfiantzazkoa: ” ... *Elkarrekin pasa ditugun orduak eta elkarrekin hainbeste isildu dugu biok...Ez al zaizu iruditzen oinarritzko laguntasunaren muina, elkarrekin isiltzea dela, lotura hautsi gabe? Isildu egingo naiz orain ere, ulertzen nauzun segurtasunarekin.* ”

Poetaren eskutik oroimenaren paisajeetan bidaiatzen du Mariak, Gerra Zibileko infernuan zehar, eta porrotaren eta huts egitearen baretasunean barrena: ...”Porrot egitea ez da erru bat.”

Bai, porrot baten historia da. Asko maitatu eta huts egin zuen: *“Maria, ez dago maitasunik, tximista besterik ez dago eta harrapatu egin behar da! Nahiz eta infernuko su guztiekin hatzaparrak erre... eta arima. ¡Gero berandu da!”*

Asko borrokatu eta huts egin zuen, eta maitatzen eta huts egiten jarraitu zuen, eta borrokatzen eta huts egiten: *“Gure ongi jaiio eta gaizki hildako bigarren Errepublika. Bakean sortu zen, eta esku armatutan hil. Dolu, negar eta odol errekek isuri eta jaurti zituen, agian mende baterako.”*

Bihotz eder eta emankorreko emakume baten aurrean gaude, batez ere borrokalari gartsu baten aurrean.

Baina antzerkigile nekaezina ere bazen: *Antzerkia, Gregorio, ur-sugea da, ez zazpi, baizik eta milla aho dauzkana etengabe ase beharrekoak norberaren hezur eta barne muinez.”*

Azken finean, haragizko eta odolezko emakume baten aurrean gaude: *“Desioak dituen emakumea naiz, esperantzak, desesperazioak, haragia eta odola, borondatea, grina txarrak...zu bezalakoa...gizon bat...emakume bat...”*

## FITXA TEKNIKOA:

María de la O Lejárraga	Maite Agirre
titiritero mutila	Mikel Agirregomezkorta
titiritero neska	Ruth Martin
poeta	Jonan Goenaga
Gregorio	Xabier Erdozia
Musikaren moldatzailea:	Joxean Goikoetxea
"Ez omen nauzu iada maite" kantuko kantaria:	Arantxa Irazusta
Kantua itzuli duena:	Mielanjel Harana
Kartoi-en margolaria:	Jesús María Cormán
Eskenografia:	Ibon Aranberri
Argiteria:	Angel Collado
Jantziak:	Agerre Teatroa
Zuzendari laguntzailea:	Maria Julia Hernandez
Zuzendaria:	Maite Agirre
Produzioa:	Agerre Teatroa Tel/Fax: 943471106



Testoa Maite Agirrek idatzi du; hartarako iturri hauek erabili ditu: Maria de la O Lejarragaren **Una mujer por caminos de España**, **Gregorio y Yo** eta Mariak berak idatzitako antzeslanak; halaber, Antonina Rodrigoren **María Lejárraga, una mujer en la sombra** eta Juan Ramón Jimenezen obra poetikoa. Euskarara itzultzea Txilikuk eta Beatriz Zabalondok egin dute.

## ~Txorakeriak~

Me dices que ya no me quieres  
me dices que ya no me puedes  
ver  
amor quien pensara que fuese  
tan facil dejar de querer

Me dices que ya no me quieres  
me dices que todo ya se acabo  
si el juego de amor te ha gustado  
podemos volver a empezar



Ez omen nauzu iada maite  
ni ezin ikusirikan zaude  
maitea nork esan hain errez  
ginakenikan aparte

ez nauzula maite diozu  
den-dena omen dela bukatu  
jolasa gustatzen bazaizu  
gintezke berriz maitatu



# ETA MARIA, HIRU ALDIZ AMAPOLA, MARIA

## Maite Agirre

- TITIRITEROA Funtzioan zoragarri abestu duzu eta dantzatu. Beti amesten den, batzuetan espero den eta sekula lortzen ez den maitasunaren xarma guztia, zure gorputzaren jira eta biran dago. Ur ganean dantzatzen duen sua dirudizu. ( )
- NESKA GAZTEA A, maitasuna! (*BARRE*)
- TITIRITEROA Zeri egiten diozu barre?
- NESKA Maitasunari... sekula lortzen ez dena... (*BARRE*)
- TITIRITEROA Zuk lortu duzula uste al duzu?
- NESKA Erantzun zeuk nigatik (*BARRE*)
- TITIRITEROA ( ) Maiteari ahoan musu ematea, barrez ari denean... iturritik bertatik edatea bezala da; ur hotzaren azalean, hotz-hotza! eguzkia barrez ari denean. Eta begi zoragarri batzuei darizkien malkoak xukatzearen parekoa!
- NESKA Nork aipatu ditu malkoak? Maitasunean ez dago malkorik.
- TITIRITEROA Arrazoia duzu, emakumea! Maitasunean ez du behar malkorik. Betetzen ikusi eta irten aurretik ezpainekin lehortzen ez dituen maitalea, malapartatu bat da... Ai, gozoa da maitasuna begietan musukatzea!
- NESKA Bai... maitaleak ixten dituenean, maitasunez errendituta, eta ezpainen artean ireki eta itxi dabiltzanean, txori gatibuen antzera...  
Musurik goxoenak hemengoak dira... lokietakoak... zain garden eta urdin hauetan emandakoak... bizitza igarotzen doan hauetan...
- TITIRITEROA Nire nahia, maiteari musu bihotzean ematea da! ( )
- NESKA (*BARRE*) ... Musu eman ala hozka egin?
- TITIRITEROA Axola al dio? Bi gauzak!
- NESKA Hemen naukazu... nahi banauzu... Eman musu edo egin hozka! ( )
- TITIRITEROA Baina zuk... ba al daukazu bihotzik?
- NESKA Ez dago gizonik daukanik.
- TITIRITEROA Eta zuk bai?

NESKA Ez dakit! ... Baina, zuregana hurbiltzen naizenean, gorputz guztia bihotz dudala iruditzen zait, guztia dardarka jartzen baitzait, eta taupaka, eta sutan...

TITIRITEROA Bah... hori desioa da... eta ez besterik!

NESKA Maitasuna da!

TITIRITEROA ( ) Ia ezer ez!

NESKA Maitatzen ez denean ez da desiatzen!

TITIRITEROA Dantzatu beste pixka bat!

NESKA Nekatuta nago!

TITIRITEROA Zergatik, txiki?

NESKA Ez dakit... Neke arina da, baina leher egiten duena... logurarik gabeko loa bezala... Gaua izango da, geldi-geldia dago-ta. Izarrak hain doaz poliki zeruan...

TITIRITEROA Jasminek hain daukate usain gozoa...

NESKA ...eta altzifreek hain mingotsa! ( )

TITIRITEROA Altzifreek?

NESKA Bai... altzifreek eta mitreek... Nik nahiago dut hostoak usaindu loreak beraiek baino... eta hozka egin... Perfume garratza eta gogorra daukate... ahoa erretzen duena, eta eztarritik sartzen dena arimaraino...

TITIRITEROA Emakumearen eztarria habi epela bezalakoa da... eta akara zaporea du...

NESKA Eta eskuek, zeren zaporea daukate eskuek? ( )

MARIA ...nire oroimeneko titiriteroak, oroituz, berriro bizitzen ditut ordu pozgarriak.

NESKA ( ) Nor zara zu, andrea?

MARIA Zuek izanarazi eta oroimenera ekartzen zaituztena. Zuen egilea.

NESKA Oker zaude, gure egilea Gregorio Martinez Sierra da.

TITIRITEROA Zein da Gregorio Martinez Sierra?

NESKA ( ) Gregorio gure egilea da!

MARIA Orain itzal bat besterik ez, agian etorri dena —hainbestetan bezala gorputza eta begiratzeko begiak zeuzkanean— nire sorbaldara hurbiltzeko nik idazten dudana irakurtzeko... Gregorio nire bidelaguna zen.

( )

Orain bere heriotzak esku hutsik utzi nau, gure abenturak bere izenaz estaltzeko mesede handia gabe.

Komentzituta nago obra guztiek irabazi egingo luketela gizalegean, sortu zituen egilea guztiz ahaztuko bagenu. Ze eransten dio Romeo eta Julietaren patu tristeeek murgiltzen gaituzten handitasun nareari, min eztiari, jakiteak obra komediagile tabernetan mozkortzen eta emagalduekin zitalkeria ibilizale baten buruan eta bihotzean sortu dela. Ideala obra perfektuak idazten asmatzea litzateke, egilea betirako ezezagun geldituko litzatekeena. ( )

NESKA ( ) Gregorio...! ( )

TITIRITEROA Xiiii! ( )

MARIA ( ) ... Gregorio, zenbat gauza elkarrekin... lotu-lotu eginda kafetegiko txokotxoan, berogailuaren ondoan, eszenak zirriborrotzen, komedia berriak, tema eta amets literarioak elkarretaratzen. ( ) Gregorio senarra nuen. ( )

Gero beste batzuk etorri ziren... ( )

JRJ ( )

Belardiko andregaia, garitan zabalduko amapola, amapolatxoa; amapola, ezkondu nahi al duzu nirekin? ( )

MARIA Hasperenak edo kantua zer diren ez dakigun aiene horiek nire poeta maitagarriarenak dira, nire heroina guztiez maitemintzeko ohitura gozoa daukan poetarenak.

JRJ Maria, hiru aldiz amapola, Maria, ura eta lira hiru aldiz, poeta parke hauetan barrena eraman zuena...

MARIA Poeta, ez dakit bizirik edo hilda nagoen. ( )

JRJ Maria, bizirik zaude eta bizirik daudenek oroitu behar dute hildakoez.

MARIA Poeta... Titiritero, alaitu, titiritero, alaitu titiritero gaua zure danborrarekin... ( )

JRJ Bideskak

loretan dauzka adarrak!

( )

MARIA Lagun maitea, fuera tristurak! ( )

JRJ Tristura da, ene Maria, bizitzea merezi duen gauza bakarra, alaitasuna sentimendu arrunta da; zoriontsu izateko ez dago alai egon beharrik. Maitasarre handiagor gogoratzen dituzula zenbait tristura sakonetakoak alaitasun guztiak baino? Balio duenak iraun egiten du eta tristura ez da sekula amaitzen.

MARIA Ba tristurak alde batera utzita, hemen daukazu merezi baino gehiago maite zaituena. Entzun, poeta demonioa, nola alaitzen naizen bizitzako ordu onez eta hainbestetan zu nire ondoan egonaz. ( )

JRJ Memoria, saminezko erle itsua!

MARIA Inoiz ez nau kezkatu oroitzeak. Bizirik nengoen eta bizirik egote hutsa aski da berez. Baina orain Gregoriok atea ezinbestean iragan duen honetan, orain, agur esatean, bere oroitzapenak... lagun nazala, izan dadila nire gida ibai honetan... ni bezala ahaztutako honetan.

JRJ Bazen ibai bat, bazen bizitza bat...

MARIA Gogoan duzu, nire erretraturako bertsoak idazten zenituenekoa? Gogoan duzu ze isilik iluntzen zuen neguan? Eta zure eta Verlainen bertsoak irakurtzen genituenekoa?

( )

JRJ Lina, nexka saltinbankia! Maitale ideala! Entsaio nagusia ikusgarria izan zen!

MARIA Desastre bat izan zen! Guztia gaizki irteten zen, ezer ez zegoen bere tokian; koroak lekuz kanpo sartzen ziren, argiak ez zebiltzan, trajeak amaitu gabe zeuden... baina Amadeo Vives entsaio nagusira jakinmin gaiztoarekin etorri zena, amorratuta purrusta batean joan zen... A ze arrakasta! Ehun emanaldi seguru!

JRJ Eta asmatu egin zuen. Gauean, estreinaldian, primeran irten zen guztia. Mago batek, bere talismanarekin, kaosean ordena jarri balu bezala.

MARIA Herri honetan maisuak gara geure baitan mila dorre eta gaztelu egiten eta ulergaitzasunari zentzua bilatzen.

JRJ Arrakasta itzela izan zen "erotzekoa, suarra, basatia", zioen prentsak.

MARIA Bai, gure aktoreak, Katalina Barcenak arrakasta handia izan zuen.

JRJ Baina batez ere Jose Maria Usandizagaren talentua hartu zuten aintzakotzat. ( )

Kantua, txoria berriz ere! Hemen zaude, itzuli zara, beste izen batekin! Abestu egin behar duzu! Beste udaberri oso batean, abestu egingo duzu.

MARIA Mendeak dirudite joandako atzo hura eta gaurkoaren artean, eta kontua da, betiereko bilakatutako hatzaparkada bat egun besterik ez direla.

JRJ ...Oroitzapenak... atergabeko euria! ( )

MARIA Bai, lagun maitea, euria dihardu... Euria, euria, etengabe, hotz egiten du, antzerkera ez da jende gehiegi joaten. Pixkatxo bat tristeegi nago. Non zaude, poeta demonia? Hemen nahi dut! ( )

JRJ Maria, obra handi bat idazten ez baduzu, arriskurik gabeko emakumea zara!



MARIA                   Buruak nahi gabe gogora ekarriko didan sufrimenduaren kontra borrokatzeko prestatzen ari naiz. Zuk, poeta, ulertzen duzu zer isiltzen dudan!

( )

NESKA                   Zertan diharduzu?

TITIRITEROA           Zu maitatzen.

NESKA                   \*Ia ezer ez! ( )

TITIRITEROA           Ez egin barre! ... Zer egiten zenuen hondartza bakarti horretan?

NESKA                   Ikusten duzu...

TITIRITEROA           Ito egin nahi zenuen? ( ) Ito egin nahi zenuen?

NESKA                   ( ) Ez esan txorakeriarik! ... Inork ez du ito nahi.

TITIRITEROA           ( ) Baina zuk bai! Zergatik biltzen duzu ilea?

NESKA                   Enbarazu egiten didalako bestela.

TITIRITEROA           Ez, uztazu... ongi dago horrela... libre.

NESKA                   Ui, libre! Zentzurik gabeko hitza, txikito.

TITIRITEROA           Esaidazu... ( )

NESKA                   Ito egin nahi zenuen?

TITIRITEROA           Ez, hori badakit: Bai!

( )

JRJ                       \*Kontuz! Kontuz hegoak erre ilusiozko sua piztuta!

MARIA                   Kontua, zertarako? Sekula ez dut izan. Orain ere ez daukat. Zaharra naiz, eta abar lehorrekin ilusiozko suak pizten jarraitzen dut. Ez naiz damutzen. ( )

JRJ                       Maria, zer gertatuko zen gizon gizarajo hark harria bota izan ez balu?

MARIA                   Ito egingo nintzela seguru, igerilari ona izanagatik ere ito egingo nintzen. ( )

TITIRITEROA           Maite zaitut.

NESKA                   Gezurtia.

MARIA                   Pertsonaiak gezurri batzuk zarete guztiok.

( )

TITIRITEROA           Eta oroitzapenak? Ez dizute horiek gezurrik esaten ala?

MARIA	Nire pertsonaiek ez dute zerikusirik nirekin, zuek mintzatu egiten zarete eta nik hitza hartzen dizuet.
TITIRITEROA	Segi dezagun ba hizketan, eta ikusi, gure ahotsak diren entzungo ditugunak edo zure bihotzaren taupadak.
MARIA	Pertsonaia edo nire bihotza izan hizketan ari dena, egizu ixiltzeko mesede.
TITIRITEROA	Zure morroia al naiz?
MARIA	Neu naiz zure morroi, zuen morroia.
TITIRITEROA	Oso ongi, egizu ba berak niri sinesteko modua, egia da-ta maite dudala.
MARIA	Gezurria.
TITIRITEROA	( ) Egia da. Maite zaitut, maite zaitut, maite zaitut!
NESKA	Esan didazu... batzuetan zoramen batean, beste batzuetan debozioz... besteetan amorruez...
TITIRITEROA	Eta nire arima guztiarekin eta gorputz guztiarekin! ( ) Ez urrundu nigandik! Ez zaizu ezer gertatuko... Zuk nahi ez baduzu!
NESKA	( ) Seguru! ( ) Eta ez dut nahi, badakizu?
TITIRITEROA	Gaizki egiten duzu!
NESKA	Zuk uste?
TITIRITEROA	( ) Zure bizitza oinaze/sufrikario bat da. Zentzugabeko bizitza. Egonda, zu zauden bezala... ezkontuta... ( ) Ez, zu ez zaude ezkontuta!
NESKA	Ai ume, Elizatik, Juzgadutik... eta maiteminduta, eta hori da garrantzitsuena!
TITIRITEROA	Maiteminduta...? Zu edo bera? Zergatik zaude beti bakarrik, abandonatuta, maitasarre gabe, zergatik...? Non dago zure senarra? Zu bezala hasperen egitearekin konformatuko dela uste al duzu, emaztetxoari gutunak idazten dizkion bitartean? Bakarrik dagoela uste duzu? norekin iruditzen zaizu egongo dela orain?
NESKA	Bakarrik nago, nire senartxoak, munduan batetik bestera pasatzen duelako bizitza, dirua irabazteko.
TITIRITEROA	Eta premiarik ez daukazue.
NESKA	Hori nire kontua da.
TITIRITEROA	Kontu tristea, frakasatua, ustela, bakarrik zaude.
NESKA	Bera ere bai.
TITIRITEROA	Hori uste al duzu?

NESKA            () Bost axola.

TITIRITEROA    Ah, ez duzulako maite! ... Zuk ere ez duzu maite.

NESKA            () Zu maiteko zaitut, ezta?

TITIRITEROA    Zeuk esan duzu.

NESKA            Baina zu erotuta zaude!

TITIRITEROA    Eta zu ez?

()

JRJ                Hartu maitasun hori, gaur bertan, emakumea, oraintxe bertan; botaizkiozu haragizko eta odolezko kateak, kontu egin zeurea duzula eta kendu egingo dizutela! Ez itxaron, lotu sendo!

()

NESKA            Hara, amaitu dezagun behingoz...! Nik, izugarritzko pazientziarekin dihardut... edo izugarritzko koldarkeriarekin.

TITIRITEROA    Horixe diot nik... Pazientzia alferrikakoa, eta koldarkeria... koldarra.

NESKA            Pazientzia eta koldarkeria zurekin.

TITIRITEROA    Nirekin alferrikako koldarkeria daukazu.

NESKA            Haizea hartzea ez bidaltzeko behingoz!

TITIRITEROA    () Ezin duzu. Ez egin haserre plantarik ezin duzu-ta.

NESKA            Ai ama, hau da ume astuna! ()

MARIA            Nork esan dezake, ez dela beti bakarrik egoten? Agian maitaleek amets bera amesten dutenean ere, amesteko helburua desberdina da. () Zer iruditzen zaizu obra? Inozoa? Kalterik gabea? ()

JRJ                Desioak dituen emakumea naiz, zeloak, esperantzak, desesperazioak, haragia eta odola, borondateduna, grina txarrak...

NESKA            Koldarra naiz... ez dakit barruan itotzen nauena oihukatzen, ... ez dakit esaten: "hiltzen ari naiz!".

MARIA            () "Nik ez dut jakin... sekula ez dut jakin izan... Koldarra naiz... sekula ez dut ausardiarik, harrotasunik izan esateko: Nirea da!"

NESKA            Ez daukat neurerik ezer... inoiz ez dut eduki...

TITIRITEROA    Soledad!

NESKA            () Ixildu, inozoa!

TITIRITEROA Zergatik? Maite zaitut, maite zaitut, maite zaitut.

NESKA Entzun egingo digute eta ni andre ezkondua naiz. Hemen...

TITIRITEROA Orduan utzidazu esatera joaten entzungo ez diguten tokira... Utzidazu esatera joaten zeure logelara... gaur gauean... berriz ere bakarrik egongo zara-ta... Nahi duzun beste errieta egin, gero iraindu, hil, baina ondo-ondoan...()

NESKA Zergatik egiten duzu barre?

TITIRITEROA Ez dakit... Negar ez egiteagatik... maite zaitudalako... pena ematen didalako... zu eta nigatik... Soledad! Ez aldegin!

()

MARIA Zer egin behar luke emakumeak?

TITIRITEROA Negar, negar beste batek barre egiten duen bitartean... ()

JRJ Maria, ez dago maitasunik..., tximista besterik ez dago... Eta harrapatu egin behar da! Nahiz eta infernuko su guztiek hatzaparrak erre... eta arima... Gero berandu da. Maitasunaren kontra maitasuna dago, beste bat, hortxe bertan. Eloisa, zer zara zu orain eta non zaude? Zergatik, Abelardo alferrik, zergatik... bera zure bizitzako ardatza bazen, bere bizitza, bizitzarena?

MARIA Soledad, hori du izena. Soledad gure protagonistaren izena da. "Entzun Soledad", xuxurlatzen du Lurreko espirituak, "entzun, agian zeure senarra duzu helburua, eta nahi baduzu, ona izan liteke".

JRJ "Merezi al du? Baratze gogaikarria eta lehorra, ezkontzako maitasuna" xuxurlatzen du deabruak.

MARIA Merezi du bizitzea... Bizi egin behar da!

JRJ () Zuen bakea, nire tristura!

MARIA () ...Elkarrekin pasa ditugun orduak, eta elkarrekin, hainbeste isildu dugu biok ... Ez al zaizu iruditzen laguntasunaren oinarritzko izaera, elkarrekin isiltasuna gordetzea dela, lotura hautsi gabe? Isildu egingo naiz beste behingoz, ulertzen nauenaren segurtasunarekin. ()

Entzun hau, oraindik ere gordetzen dudan egunkari zati zahar bat da: "Barcena andereñoak merezimendu handiko arrakasta izan zuen bart. Nolako lainotasuna, zenbateko samurtasuna ipini zion bere pertsonaiari! Aktore eder baten lan guztiz borobila izan zen".

JRJ () Lainotasuna, lotsa, samurtasuna eta edertasun gozoa, ilehoria eta xarmangarria.

MARIA () Ah, baina bonba lehertu zen... Gregorio zor eta lor/ikaratuta zegoen beti ikusi zuenetik hain desberdin ikusita: suminduta, amorratuta, haserre eta korridorean gora eta behera txistu batean lehoiemaren gisa... Ezagutzen ditugu

antzerkiko señorak euren onetik irteten direnean. Hain ongi egiten dute errugabetasun, pena, etsipenaren papera! Baina Gregoriok azkenean bere benetako izakeran ikusi zuen, ni betirako hondatu nahian, emaztea bera bailitzan agertuz, bera aukeratua. "Zenbat gauza ulertzen ditudan orain!" esaten zidan gero Gregoriok. Gregorioren aitortpena ezusteko ikaragarria irudituko zitzaion... () Katalina, izan, oso aktore ona zinen, Gregorioren lilura, gurtza, baina ez inspirazioa. Nire senarra sekula ez zen elkarrizketa erdi bat ere idazteko gauza izan; nik, lekuz kanpoko Mariak, nik idazten nituen zure pertsonaiak, nik, zure arerio gorrotatuak, hain berea zuena lapurtzen zenionak... ez duelako bererik ezer sekula eduki! ()

- JRJ Eloisa, zeinen ongi ezagutzen zenuen zeure burua eta hitz egiten zenion, zeinen samur izendatzen zintzaion, eta ze benetako azuzena izan zinen! ... Ni hirugarrena, eroria...
- MARIA () Poeta, zoaz poeten infernura, ni etxekoandre zintzoen zerura joango naiz-ta.
- JRJ () Baina hemen aktoreak gara guztiok, eta aktore soilak, eta antzokia hiria da. Banoa! ()
- MARIA Pizti lotsagarria, poeta demonioa! Nora zoaz? ()
- JRJ Ez dakit! Inora ez! Munduaren azkenera! Infernura!
- MARIA Txartelik ba al duzu?
- JRJ () Protagonista izatetik ikusle bihurtu naiz.
- MARIA Orduan, lagun maitea, ez bazait ezer bururatzen, amaitu da komedia.
- ()
- NESKA Faustino! Faustino!
- MARIA Faustino! Faustino!
- NESKA Nirea da!
- MARIA Eta nirea!
- NESKA Ez, nirea!
- MARIA Hori nirea da! Ni naiz bere egilea!
- NESKA Nirea da! Faustino, zertan ari zara? Ikusleen aldera joan zara? Galdua, galdua, galdua betiko!
- MARIA Galdua? Ezta pentsatu ere! Hori ez zait galduko niri ezta Saturnora bila joan behar badut ere! Faustino, zertan ari zara?
- ()
- MARIA () Amaitu da komedia! Ez dago irtenbiderik...

NESKA Ez dago irtenbiderik...? Ez dago irtenbide posiblerik! Zurea da errua!

MARIA Zurea da, ihes egiten uzteagatik!

NESKA Zurea! Galdua... galdua. Amaitu da komedia...

MARIA Amaitu da komedia!

NESKA ( ) Espero nuen azpijokoren bat zugandik! Komediagilea! Lastima da marrazoen pare igeri egiten dakizulako ez itotzea!

MARIA Hori da konparaketa poetikoa! marrazoen pare! Esan dezagun sikera itsas lamien antzera.

NESKA Marrazoen pare! ( )

MARIA Faustino, Faustino! ( )

JRJ Jajaja. Begiak tximista bezala pizten zaizkion marrazo baten antzera. ( )

MARIA Zertan ari zara, komedia lapurtzen?

JRJ Komediagilea... Ez zara ausartzen maitasunari aurrez aurre begiratzen. Ez itxi begiak! Heldu maitasunari ikatz goriari bezala! ... Egiozu hozka bihotzean! ... Labana bezala bizitzaren barru-muinetaraino iristen da!

MARIA Entzun, dohakabea, ni ere banoa. Eta orain bai amaitu dela komedia! ( )

( )

JRJ Hau gaurkoa da oraindik, eta biharkoa oraino, etxez etxeko joana mendeetako antzerkian. ( )

AHOTS GAZT. Guztiok egon gara bilduta etxe atsegin zuri eta zaharrean; eta orain sakabanatuta gaude guztiok.

JRJ Bizitza begi, esku, aho, beso, oinak elkartze eta sakabanatze hauxe da; bakoitza zerk erakartzen duen edo gogaitzen, haren bila...

( )

MARIA Zein emakumek ulertu du guztiz sekula gizon bat? Ezta berarekin bikote kuttuna osatzen duena ere. Gregorioren oroitzapena neuregan daramat. Agian, nirea beregan doa batek dakien handitasun edo sakontasunetara? ( ) Gregorio, Gregorio! Gustukoa dut izen hau oihukatzea, besterik gabe, oihukatu soilik, hutsaren truke...

( )

MARIA Gregorio. Gregorio, badakit utzi egin diozula ni maitatzeari. Izugarria da, izugarria, utzi egin diozu ni maitatzeari... Bildu-bildu eginda esnatze hura, oheko nagikeri une haiek, zorion apurrak... galduak...

- GREGORIO Zu gabe behin behinekoa iruditzen zait guztia. Zorionez, Maria, zure gutunak oso zeure antzekoak dira, eta irakurriz entzun eta ikusi egiten zaitut.
- MARIA ( ) Gregorio... Gregorio maitea, oroitzen ote zara nitaz...?
- GREGORIO Nire neskatoa. Zutaz oroitzen naizen? Neure buruaz ahaztu beharko nuke zutaz ez oroitzeko. Egun guztian zauzkat gogoan, edozein gauza eginda ere. Nire neskatoa, mimo asko, ikusteko irrika bizia eta kabitzen ez zaidan maitasareta. Musu eta besarkada lar mordoa. Ez zaitut ahanzten ezta segundo milarenik ere. Egizu ahal duzun lan guztia.
- MARIA Antzerkia, Gregorio, ur-sugea da, ez zazpikoa, baizik eta mila aho dauzkana etengabe gobernatzekoak norberaren hezur eta barne muinez.
- GREGORIO Umea, oso ongi iruditzen zait ez idaztea ez bazaude ondo, edo atsedean hartu nahi baduzu hainbeste lan egin ondoren. Baina berriro diotsut, zeure aje eta guzti, inoiz baino hobeto idazten duzu. Lana egiten baduzu, egunean ordubete besterik ez bada, presarik eta presiorik gabe, urtean bi edo hiru komedia idatz ditzakezu konturatu ere egin gabe.
- MARIA Gregorio, emakume pobre guztiek behar baino askoz ume gehiago izaten dituzte. Idaztetik lanbidea egiten duten idazleak, beharko lituzkeenak baino obra gehiago egiten ditu.
- GREGORIO Maria ez ahaztu artikulua ere idatzi behar dizkidazula.
- MARIA Gregorio, nik dagoeneko ezin dut gehiago, beraz, jarraitu zeuk, ni lurtean esertzera noa. ( ) Zergatik ezin izan ote dizut sekula eutsi orainean bizitzearen gozotasunean?
- GREGORIO Nire neskatoa, beste bultzadaxo bat. Bizi-bizi idatzi beharra daukazu komedia berria Bartzelonako errepertorioak dirurik ematen ez badu aurrea hartzeko. Erne ibili beharra dago, funtzio asko dira eta aurrekontu altua daukagu.
- MARIA Gregorio, noiz zator? Zuk ez dakizu zer den bakardadea. Isiltasunean hainbeste ahots entzuten dira sekula entzun gabeak... eta gero lagunak egiten dira... non? galdetuko duzu. Norberaren baitan. Gauza bitxia da; urte asko egiten dira, hamar edo hamabost, beti nork maiteko zaituen bila, beti laguntasuna leialaren eskean, maitasareta akasgabea, irakurri ditugun edo kontatu dizkiguten gauzak; eta lagunak huts egiten dute edo maitasareta hil egiten dira. Nahigabe handiko egunak etortzen dira eta orduan, bila nekatuta, begiak itxi, ( ) bakardadean etsitzen duzu... eta bakardadeak ere huts egiten digu, ihes, lagun ideala aurkitu dugulako, arima leiala. Norberarena da, sekula erreparatu ez geniona eta zain geneukana betidanik, gozamenen eta sufrimenduan begira geneukana ( ) geure bizitzaren bide ertzean eserita. ( ) Komedia triste samarra, baina halakoxea da mundua.
- GREGORIO Maria, ez ahaztu komedia berria... bihotza, ez dizut gauza eder gehiegi esan nahi zeren beldur naiz pentsatzea, beste hainbestetan bezala, ez direla egiazkoak. Hau da nire tristura handietakoa.

( )

MARIA Gregorio, gure elkartasun intelektualaren umeez zure izena eramatea nahi dut. Legezko ezkontzaren fruitu direnez aitaren izenarekin badute nahikoa ohore.

()

Gregorio, nik ez dizut seme-alabarik eman, berak ematen dizkizu... Libre utzi zintuen. Sentimenduan ez du inork agintzen. Zoaz berarekin. () Sentimenduan ez du inork agintzen...

()

GREGORIO Sinets dezakezu gutxienez zuk gogoratzen nauzun bezainbeste gogoratuko zaitudala nik, ziur nago. ()

Beti, beti, beti, beti eramango zaitut nirekin, beti, beti, beti.

()

GREGORIO Negarrez, Maria?

MARIA Ez.

GREGORIO Bai, zergatik ari zara negarrez?

MARIA Ez dakit, tristura ematen didalako.

GREGORIO Nirea?

MARIA Guztiona. A ze oinazea haragi minberatuak!

GREGORIO Izango al zara gauza niretzako gorrotorik ez izateko?

MARIA Gorrotoa?

GREGORIO Benetan ez daukazu nire kontrako saminik?

MARIA Samina zure kontra? Zer axola dizu?

GREGORIO Munduan ezerk baino gehiago!

()

MARIA Katalina...

JRJ Maria...

MARIA Joaten dena, irabazlea al da? gelditutakoa, hiltzen dena? benetan al da horrela? bestea da, joana, hiltzen gaituena? zer da egin beharrekoa?

Ai, lagun, zeinen zinez desio izan nuen heriotza, neuk bakarrik dakit. Lastima marrazoen pare jakite igerian. ()

()



- Don Manué...
- JRJ Manuel de Falla.
- MARIA Nire don Manué, bere musika sartua daukat, ez belarrietan bakarrik, baizik eta haragi guztian eta odol guztian... a ze oinazea haragi minberatuak! ()... musika lazgarri eta ezti-goza, lakarra eta ameslaria, atsekabetua, urratua, eguzkiz eta negarrez egina... maitasuna bezala, intzentsu usainarekin, zoritxar kutsuarekin. () Euria da, euria ari du atergabe. ()
- JRJ Hirugarren esparrua, euri hotz eta usuarena!
- MARIA Nire bizitza mugiezinda geratu da, belardi bakartian landatutako zuhaitza bezala. () ... Hori ... () ez dute jada nire eskuek idazten, orain pentsamenduak dira idazten dutenak, beraiek, txoriak adar artera zalaparta ateratzera etortzen diren bezala. ()
- MARIA () Zu, Lina, noiz hasi zinen nire bihotzean kantatzen? () Buru biko arranoa den matrimonioaren erdia izan beharrean, bakarrik jardun banu lanean, ez nuen laurdenik ere idatziko. () Baina zu, Lina, nire zain zeunden, ezta? Jakina, Lina, ez zuten nire ume guztiek izan behar besteko heldutasuna. Ahalegindu naiz, bai, munduaren aurrean aurpegia ondo garbituta aurkezten, tximak antolatuta eta soineko garbiarekin, batzutan farfailekin apaindua egokitu denean; ez naiz inorekin lotsatzen, ez baitiet sekula utzi ez gezurrik esaten ez iruzur egiten; askorena izena ere ahaztu egiten zait. Umeen kontuak ateratzean, beti ahazten zait bakarren bat. Dozenaka topatu ditudan emakume gajo horiek datozkit gogora, ze neuk ere galdetu izan diet: zenbat seme-alaba bota dituzu mundura? Haiek ere zalantza egiten zuten ikararik gabe erantzun aurretik: "hogei izan ditut". Estuasun ederrean jarriko nituen izenak eta datak emateko eskatu izan banie. Erditu zuten behin jakinaren gainean, eta sortzen eta erditzen segi zioten minaren eta larritasunaren konturik atera gabe, gorputz barruan emakume odola izan zuten bitartean. Iruditzen zait hasi ezkerro, halako batean, umeteriaren kontaketa egiten, anabasa nahasi bat ikusten dutela. Nola gogoratu guztiak? Izango dira batzuk, zalantzarik gabe, joan zirenak, zerura aingeru, gosearen ihes.
- Nik ere ezin ditut gogoratu nire ume guztien izenak. () Asko dira, poeta... halabeharrak senar handinahi eta ekintzaile batekin elkartu ninduen, beti etorkizunean bizi izan zena. Zenbat aldiz esan nion: "goazen bizitzan mantso-mantso". Eta esaten nion lurrari eta uneari atxikitako nire espiritu oinarrizkoenaren berotasunean.
- JRJ Bizitza faltsua da eta hutsa. Soledad, gogoan daukat neska ilehori hura / mutil triste hura / Zer gelditzen da kalezuloko haren haragitik? Oroitzapen bat, / kolorerik gabea, aharrausia, mina eta itzala... ()
- MARIA Verlainerengatik, zuk Espainian amestu zenuen eta nik atzo Frantzian ikusi nuen emakume baten ile horiarengatik; hainbat eta hainbat ordu lagunero oioitzapen onagatik, ez gaitzezen triste egon, utziogun tristurari bere bidean jarraitzen...

- ( )
- JRJ Gure ibilera egun leun eta babesgabe baten antzekoa da, askotariko bizitzaren erdian. Entzun, Maria, entzun duzu? ( )
- AHOTSA Errepublikako soldaduak  
eta hiritar jacatarrak  
errege-makilek hor datzate puskatuta  
koroek eraitsiak  
Herriak libre izan nahi du  
ez ditu nahi monarkak  
Atzo Espainia erreinu zen  
Gaur Errepublika da Espainia.
- JEJ Entzun Maria, hori Rafaelena da.
- MARIA Rafael Alberti, mundua begi berriekin ikusteko ze gogo daukadan...
- JRJ ( ) Maria de la O Lejarraga, Granadako Erakundeek zu proposatzen zaituzte hautagaitarako...
- MARIA Errepublikako diputatu! ... Onartzen dut, ezin nahiz pozik bizi ekintzaren pairamenetik kanpo; Onartzen dut zure ahotsa itozteko, Gregorio, idazten jarraitzeko agintzen duena. Orain hizketan ekitera noa... eta zenbat hitz egin zuen emakume honek herriz herri. Poeta kanpai-hotsa entzuten dut, hauteskunde bezperako igandean bezala... Aurkariak hurbileko eliza bateko kanpaijolea erosi zuten azpitik eta hau binbili-banbala hasi zen... ( )
- ( )
- MARIA ... eta ez zion jotzeari utzi hitzaldiak amaitu ziren arte. Baina kanpaiek berotu egin zuten jendea, ikusten gintuzten hizketan... Esaten ari ginena... bazeramaten eurek bihotzetan.
- JRJ Agian horrela gertatuko da poesiarekin, antzerkiarekin... ikusleak... ikusten gaitu hizketan eta... ( )
- MARIA Ez dezagun hitz egin antzerkiaz, inori ez zaio interesatzen dagoeneko-ta. Entzun hau, gure aurkarien beste trikimailu bat, oraingoan Castrilen. Balkoira irtenda geunden. Plazan, bakardaderik handiena. Nire laguna sakrifikatzen da oso galai eta lehenengo txanda hartuta hasten da hizketan hutsunera. ( ) Eta bere ahotsa konjurio magikoa edo galeperretarako apeua bailitzan, gizon batzuk, gordeta non zeuden ere jakiterik ez zegoena, hasten dira irteten plazara ematen duten kale-kantoietatik.
- JRJ Jakinminak garaitu egiten du beldurra!
- MARIA Garaitu egin gintzaizkion kazikeari!
- JRJ Ez da kukurruku egin behar garaia baino lehen.
- MARIA ( ) Hala da, lagun maitea. Infernuko makina bat abiatu zen zistu bizian kaleetako batetik eta plazara amildu zen. Zer zen hura? Tankeak? Artilleria motorizatua? Guardia zibilak zaldi gainean? Ezta urrik ere. Lau asto egurzama

bikainekin kargatuta, trostan jarri eta bakarren batzuen ahotsak zirikatua... Gure publikoa, beldurrak airean, sakabanatu egin zen eta berriz ere bakarrik gelditu ginen. ( ) Koldarrak! Gizagaixoak! Lau asto tristekin beldurtu egiten zarete? Arrazoia du bai kazikeak mespresatu eta goseak hiltzen zaituztenean! Hurbildu zaitzete, koldarrak! Herri honetan, itxura denez ez dago gizonik! Hurbildu, emakumeak, beraiek baino ausardia handiagoa baduzue! Emakumeok hitz egingo dugu behingoz, Errepublikak emeoi gizoni bezainbesteko eskubidea ematen digunez ahotsa altxatzeko! Bota dezakegu, lehenengo aldiz, beraik bezala. Indarrez ez gaituzte komentzituko! Ikusi duzue ze ausartak diren madarikatuak! ( ) Emakumeak barrez hasi ziren, hurrekin hurbiltzen ziren bitartean. Ondotxo zekiten nolakoak ziren euren gizonak.

( )

MARIA Emakume aurpegiak... begiradak... entzun, denok... badira bideak, badira bideak... zuek zarete, zuek zarete, elkartuz, ikasiz... Zer egin beraien begiraden ziurtasun beltzaren kontra? ezkortasun horren nagikeriaren kontra? Eta zuek, gizonok, gizonak zarete! Konturatu zaitzete gizonak zaretela! Bizi zarete, bazarete, zeuen gizalege zatia eskatzeko obligazioa daukazue! ( )

MARIA ( ) Hemen ze lan egiten da?

NESKA Ba, batzuk almendra biltzen.

MARIA Hori hiru astean egite da, eta urte guztian gero?

NESKA Ba, arrantzan.

MARIA Txalupa negargarri batzuk, pintura balduta eta zikinak... Asko harrapatzen al da?

NESKA Ze harrapatuko da! Hirikoek makina bat ipini dute dena eramaten duena eta ez dute arrainikuzten uretan. ( ) Hauek itsasora irten ere ez dute egin nahi.

MARIA Orduan, nondik bizi zarete?

NESKA Atzo eta gaur udalak zopa banatu du.

MARIA ( ) Begi polit ederrak zirkulo gorri beldurgarri horrek inguratuak, trakomak janda, Mediterraneoko kostaldeko madarikazioa. ( ) Zeinek erakutsi dizu ezpainak pintatzen? ( )

TITIRITEROA Hiru hilabete egin ditu Granadan neskame eta moda ekarri du.

MARIA Moda, jainko potxoloa! Miseria honetan... Zenbat seme-alaba daukazuzu?

NESKA Nik ondanokuan bost besteik eztauzkat.

MARIA Nola liteke... hainbesteko pobreziarekin... hainbeste seme-alaba ekarri mundura? Zure auzokoak hamabi, besteak hamar, eta zuk oraindik bost!

NESKA ( ) Ilunpetan egiten ditugunez eztitugu kontuak eramaten ( )

- MARIA Piztu ba besterik ez bada lasto-izpi bat... Ba al dakizu irakurtzen?
- NESKA Zertako, andereño?
- MARIA Irakurtzen jakiteak denerako balio du, ( ) zure seme-alabak hazten ikasteko, begiak garbitu behar dizkiezunean egunean bitan urarekin eta ez txistuarekin, makarrik eta trakomarik izan ez dezaten, gorputza igurtzitzeko, jornalak jaboia erosteko ematen ez badu, hori ere urarekin, hainbeste dago itsasoan, eta hondar fina, ( ) kobrezko pertza igurtziko zenuketen bezala, garbiaren garbiz dirdiratsu gelditu arte, tximak orrazteko... ( )
- NESKA Irakurtzeko kontu hori gizonen gauza da. ( )
- MARIA Gizonena? Ikus dezagun zein da argiagoa, zure gizona edo zu? Bere irribarreak beste behin ere, eme guztien ziurtasuna adierazten du; argitasunean ez dagoela irabaziko dion gizonik.
- MARIA Orduan... ikas dezakezue.
- NESKA Zertako? Geo norbeai parre eiteko. Esaten ibiltzeko norbea pitzatuta daola! A ber noiz eiten diguzuen zuek iraultza! ( )
- MARIA Guk? Nork? Ze espero zuten gugandik? ( )
- JRJ Guztiok, gu eta beraiek talismanaren bila gabiltza... promesa bat agian...
- MARIA Zeren promesa?
- JRJ Berorien ametsena.
- MARIA Gordeleku miserable haietan, hankagorriak esnatzen zirenean, amek kalera botatzen zituzten katuen tankeran, ea zer bilatzen zuten jateko... Hura hotza egiten zuen mendian bueltakoan!...
- JRJ Maria, zuk idazten jarraitu zenuen. Nondik sortu ziren jarduera horiek, emakume basatia?
- MARIA Pertsonaia sorta bat teman jarri zen, egoskor... ( )
- ( )
- NESKA ( ) Andrea, egia da, edan egiten dut. Edan, baino lo egiten dut! ... Eta edango ez banu, akabo loa! A ber ze egin behar duen batek edan ez bada. ( )
- Andrea! Nire gizona hau bezalakoa zen... ( ) Ala, agurtu andrea ( ) eta makinak hil zuen... eta etziaten ezer eman, esan zutelako bere okerragatik izan zela... zera, bere gogoz hil zela esan nahi izan balute bezala... eta zazpi izan ditut maite nituenak zuk zurea maiteko duzun bezala, andrea ( ), eta lau oihaletan hil zaizkit, goseak, andrea, goseak: hemendik edoskitzen zutela eta aber ze eman behar nien nik, egunero ogia garestiago bazegoen, eta ikatza garestiago, eta norbea bizi den txabola garestiago, eta ez bazen nire gorputzean ezer berorik sartzen... ( ) Zer egingo dut edan ez bada, andrea, edateari utzi orduko eta gaua

- datorreanean, denak ahoa zabalik ikusten ditut-eta, begiak gogortuta... Ogi eskean... ama deika... nire gonetatik zintzilik... Eztitut ikusi nahi! Eztitut ikusi nahi, eztitut ikusi nahi! ( )
- MARIA Antigona, har zazu eskutik, itsu samartuta dagoen gizona gidatu behar duzu. Antigona bere kontzientzia izan behar duzu, berak ez baitauka, bizitza ona edo txarra pasatzen den kaleko zaratarekin, ez denborarik ez aukerarik ere entzuteko, isiltasunean, izan zeu bere ahotsa. ( )
- Dolores Ibarruri, Francisca, Matilde, Veneranda eta baita kaletik ere Clara Campoamor, Concha, Pilar, Maria Rosa, Julia, denak, radikalak, sozialistak, berritzaileak... denak elkarrekin ( )
- AHOTSA Iraultza egin, orain egin behar da. Lantegi, bulego, jostun-tailerretako langileak, intelaktualak... emakumeak, etorri guregana, etorri Errepublika salbatzera...
- MARIA Gure ongi jaio eta gaizki hildako bigarren Errepublika. Bakean sortu zen, eta esku armatutan hil. Dolu, negar eta odol errekek isuri eta jaurti zituen, agian mende baterako. ( )
- TITIRITEROA Emakumeok, etorri!
- ( )
- MARIA ( ) Ez dut berria sinetsi nahi, poeta granadatarra ez dela hil sinetsi nahi dut, ez dutela hil, fusilatuta, urkatuta, dena delakoa.
- JRJ Eta hala ere heriotz sinetsi gabeko hau, sinetsi nahi gabekoa, bere obra eta bizitzagatik zain zeukan heriotza da, ez dakit nola eta zergatik, landu zuena; berak erromantze itxurako bereizgarri eman zion heriotza; lukeena eta ez zuena desioko; heriotza jada... ez, oraindik berea ez den heriotza... baina, egia al da Garcia Lorca hila izan dela?
- NESKA Egia al da Garcia Lorca hila izan dela?
- TITIRITEROA Egia al da Garcia Lorca hila izan dela?
- ( )
- MARIA Federico Garcia Lorca... bere bizitzeko poz era berean argia eta misteriotsuak, sorgindu egiten zituen arima errugabeak. Hil zutenek enara bat hil zuten, udaberri guztien mezularia. ( )
- ( )
- JRJ Heriotza ustegabeen nahasten da bizitzarekin, han eta hemen, ehun kolore tragiko zorrotzeko tximista bezala; loarekin nahasten da, hiltzea nahiago duena esnatu baino, ...loarekin nahasten da.
- MARIA ...lehenengo mailako hileta izan zen. Hori zurikeria Nazioarteko Erakundeak! Eta ze koldarkeria gobernu ingeles eta frantsesarena!

- JRJ Maria, agurtu gaitezen eta goazen guztiok, bakoitza bere atzerrira... ( )
- MARIA Poeta, Erruki zaitez nitaz, zarena zarela, itzal nahiz gizon bizi! Ez aldegin! Itzuli!
- JRJ ( ) Zer zabilta zalantzan? Zergatik ez daukazu ausardia eta kemena? Emakumea! Ikus dezadala nik! Putzu berdea den zure arima suge eta kateekin... ( )
- MARIA Non nago? Zergatik nago hain bakarrik? Non gaude guztiok? ... Oroitzapenek ere ihes egiten dute bakoitzak bere atzerrira, gero zailagoa egiten zait harrapatzea... Gregorio, Gregorio! begira, heriotza da... ahaztu zure proiektuak, zure paperak... begira heriotzari... Frantzia garaitezina, soldadu elbarriak, barrez, ia zorionsuak dira, jolasean dihardute, makuluekin elkar joka, barrez ari dira Europa haragi bizitako honetan. Soldaduek beren makuluekin txotxongilo bat sortu dute. Nik oihu egiten dut, Gregorio, Gregorio, Gregorio! ( )
- GREGORIO Katalina! ( ) Itxi atea hotz egiten du-ta.
- MARIA ( ) Hotzak nago...
- GREGORIO Maria maitea, 1947 hau hotza izan da. Dena dago hotza. ( ) Katalina, Espainiara itzuli nahi dut ( ) Maria, itzuli egin nahi dut, txarrenak pasako baditugu ere... paisajea edukiko dut, zerua eta lagunak bat. ( ) Catalina, zer egiten dute nire arrebek? Hogeita hamaru urtetik gora daramatzagu elkarrekin eta ez zaituzte onartu nahi nire emazte... Catalina, ze egun da gaur? Espero dut, Maria, bidaliko didazula "Sortilegio" obra, zeren zorte apur batekin, agian hiru hilabeteko denboraldia egingo dut. ( )
- MARIA Nire ahizpak apaizarekin hika-mikan ari dira ez duelako niri bedeinkazioa ematera sartu nahi. ( )
- MARIA Isilik zaude? Ba nik oihu egin behar nuke! Emakume isila, beti zuhur... ( )
- Gregorio, nor borrokatu eta lehiatu zen zurekin...? Zenbat gautan, leher eginda zu, errepasatu dizkizut notak, paperak txukundu, akatsak zuzendu, zeu nabarmenduko zinen hitzaldia prestatu? ( )
- Nor erretiratu da arrakastaren orduan, zuri uzteko harrokeria guztia? Nork egin du isiltasuna zure inguruan zeure ahotsa besterik entzun ez zedin? zure izena beste ezere ez entzuteko... eta andrearena? Gregorio, desiodun emakumea naiz, desesperazioekin, borondateduna, pasio txarrekin, zu belaxe, gizona, emakumea... Nire eskubidea bekatu sentitu nuen. Nire inteligentzia krimen! Nire indar guztia zure oinetan ipini nuen eta oihukatu beharrean "bizi egin nahi dut!" ergel baten moduan esan nion neure buruari "gizonari lagundu nahi diot". Mendetako esklabotzaren ondorioz esklabo-arima izatera iritsi gara. ( )
- Ez al daukazu ezer esatekorik? Isilik jarraitzen al duzu? Adeitasuna ala gorrotoa? Ez dakit zergatik haserretzen naizen zurekin hain zuzen ere gaur, bakean hartu behar zenukeena atsedean. ( )

Har zazu atsedean bakean, Gregorio! ( )

Gregorio, bera/zure emaztea zena zelako eta hain neurea zena zapaltzeko ohorea izan zuelako, ni orain neukanaz gabetu eta protestarik gabe uko egiteko betebeharra al daukat? ( ) Neure buruari barkatu beharra daukat ez dudalako zugan pasio handi bat pizten jakin. Neu ezereztuz joan naiz pertsonaia bakoitzean, asmatutako maitasun bakoitzean, desiatuan, irrikatuan... idatzia bakarrik... nire grina osorik jan nuen neure pertsonaiekin batera... ez nuen hainbeste idatzi behar... gero, Gregorio, utzi egin nion idazteari borrokatzeko... eta porrot egiteko. ( )

- MARIA Gregorio, izan zaitez nire laguna gaur, kontsola nazazu, hain nago triste.
- g1 ( ) Porrot egitea ez da erru bat.
- MARIA Gizonak bezain zikinduak gaude odolez eta beraiek bezain erantzule gara. Zer egitera etorri gara?
- GIZONA Esaidazu, kontuak ateratzen ari al zara?
- MARIA Galdutako sinesteena.
- GIZONA Zer nahi zenuen? Sineste oro irrika da.
- MARIA Argitu nahi genituen haietako asko hilda daude. Egunetara galdetzend dut. Inor erori ote da nire erruz? Ideala nirea zen, ez ia ulertu ere egiten ez zuten haiena. Bidezkoa al da, onargarria gizaki bat hiltzea besteren ilusioengatik?
- GIZONA Gizonari ez dio axola hiltzea.
- MARIA Beldurra dio heriotzari.
- GIZONA Azaleko beldurretako beste bat.
- MARIA Hainbeste erori dira!
- GIZONA Ez naiz ni lehenengoa esan duena: "Inork ez du hiltzen bere heriotza ez denik, eta behin bakarrik..."
- MARIA Begiratu munduari, ez al dizu hotzikara ematen bere sukarrak? Non aurkitu gaur eguneko hondamenaren aurrietan, gidari genituen ideien arrasto izpirik ere? Gregorio, izan zaitez nire laguna gaur. Kontsola nazazu. Beti izan naizen, eta sekula utzi ez diodan eskola-maistra izateko sentipenera nator berriro. Gure Errepublikak, nola ukatu? akats handi eta deitoragarriak izan zituen, baina gauza bat argitsu eta zoriontsua egin zuen: irakurtzen erakutsi zien bere umeei. Sei urtean, hain laburrak! argia pizten hasiak geunden, urrundu egin al da itxaropena? Egia esan, ez dakit. Nola aurkitu irtenbidea enbor guztiak suge bilakatu diren baso ilun horretan? Amets bat piztuko dut? ( )
- Armada baketsu bat mendietan barrena doa; armarik gabeko gudarostea. Armarik gabea, ez. Guztiek liburu bana daramate eskuan, eta hala diote: Hurbildu, begiratu iruditxocelebre hauei: letrak dira. Letra hauekin, idazten

asmatzen da; letra hauetan, irakurri egiten da. Letra hauekin, letraotan, letra hauen bitartez, ideiak ereiten dira gogoan: arrazoa, justizia... Letra hauengatik, letra hauekin, letra hauen bitartez, bizitzea merezi duen bizitza duin bat daukagu. Ze isilik zauden, Gregorio...

- GIZONA Ez al zenuen kontsolamendua eskatzen? Segi ametsetan.
- MARIA Badakizu? Gregorio bizitza luzeak eta etengabeko bidaiek, atzerriak, ideia hau zehaztu dute nire baitan: Nik ez dut aberririk behar neuretzako propio. Toki askotan kokatu nahi izan dut nire denda eta inon ez naiz arrotz sentitu, eta aberria barreiatu edukita ez naiz inon atzerriratu sentituko lurlean nagoen bitartean. Bi mundu gerra eta berorien argibide beldurgarriak behar izan dira gauzak bere puntuan jartzeko. Gaur baieztatu dezakegu ongi komentzituta: gizateria osoak ezer gutxi balio dugu.
- Sekretu bat esan nahi nizuke... ez haserretu... Ez duzu existitzen.
- GIZONA Nork esnatzen zaitu orduan? Nork zirikatzen? Nork gelditzen?
- MARIA Ez didazu bizitzen uzten, baina ez duzu existitzen!
- GIZONA Nork kontsolatzen zaitu?
- MARIA Goazen... isilik... poliki... soseguz, orain, beste behingoz udaberria datorrenean.
- ()
- NESKA Dantza dezagun! Dantzatzuz iruzur egiten zaio heriotzari, ez al da egia atabalari? Dantzatzuz lokartu egiten dira penak.
- TITIRITEROA Goazen festara! Dantza dezagun! Goazen ikuskizunera!
- NESKA Goazen, edan dezagun eta kanta, goazen festara! Goazen ikuskizunera!
- TITIRITEROA Goazen, dantza dezagun eta egin barre!
- ()
- OLIBONDOA Sekula ez ditut ulertu festa herrikoiak eta guztien bozkarioa, baina ze zalaparta sortzen dute... Mundu guztia batera pozte hori bakoitzak bere arrazoi partikularrik gabe, pozik egoteko egun seinalatua iritsi delako bakarrik, egundoko misterioa da niretzat.
- ADARRA Antzemaiozu ba, olibondo jauna! Kutsaduraz poztuko dira!
- OLIBONDOA Kutsaduraz. Mikrobioa hartzen lehenengoa nor den jakitea falta da.
- ADARRA Airean egongo da, edo eguzkitan, edo kanpaiak jotzen dituzten horretan, edo egunaren izenean... Ez al zaituzte pozten batzuetan edo tristetzen beste batzuetan zentzurik gabeko hitz batek, besterik gabe, daukan soinua daukalako? Niri, hara ze txorakeria: Santio bedeinkatua! esate hutsak oso emozio bitxia



- sortzen dit, Santio bedeinkatua! Soinu polita daukala? Eta beste alde batera hainbeste tristetzen nau maitaleak banatu edo hiltzen direnean...
- ITURRIA Jakin beharra daukazu bizitza, askotan, beraien artean jartzen dela...
- HAIZEA ( ) Ezagutzen dut esaldia; bizitza ez da inoren eta inoren artean jartzen, borondateak egiten duelako bizitza eta gizakiak beti izan behar du borondatearen jabe.
- HERIOTZORRI ( ) Oh! badira loturak apurtu ezin direnak; sinetsidazue, nire hostoen garratzagatik eta nire lurrinaren txarragatik, samin guztien jakinean nago ta.
- HAIZEA ( )
- ARROSA ( ) Gainera,... bihotzek, mindu ondoren, nahiz eta zauria sendatu, beti sentituko dute labanaren hotza,.
- LIRIO ( ) Zer da zoriona mamu hutsal bat baino?
- JASMINA ( ) O ze axola dio munduan tristurak? Heriotz zoragarria malenkoni-heriotza da!
- HAIZEA ( ) Bakoren izenean! Txukuna jarri zaigu loretokia! Ikusi ote da hau bezalako hitz sentimentalen izurrik? Aire, aire, aire, airea! Garbitu ditzagun esaldiak eta erromantizismoak! Aire, diot! Astindu, zuhaitzak, adarrak! Bizitza, heriotza, hasperenak eta labanak! Haizetara, haizetara! Aire garbia! Ura, hodeiak, anemiko gizarajo hauen espirtua freskatzeko! Garbi dezagun, airea! Makaleko esaldi-hautsa harrotu da. Airea! Isilik, iturri! Eta zu, ilargi andrea, ze hasperen darabilzu zure aurpegi zurbil horrekin! Garbitu zazu errekan, eta barre egitera zeu ere. Besterik ez dugu behar, orain zu etorri eta udako nire gauak hondatzea baino hasperen txar horiekin. Airea, esan dut, eta segituan; eta gora bizitza! ( )
- NESKA Haizearen aldekoak ote gara? Arrazoia emango ote diogu iturriari? Prest ote gaude sinesteko, heriotzorri garratzak bezala, gaitzak ezin direla apurtu, edo jasmin zorabiatuak bezala, gozoa dela malenkoni-heriotza?
- TITIRITEROA Haizeak ziurtatzen du, esaldi ezezkorrak edo funtsgabekoak errepikatzearen errepikatzez gizakiak beren buruak engainatzera iristen direla eta zoritxarrean sinestera. Esaten du gainera gauza ergela dela, bihotza hitzekin engainatzen baita, uneoro esan eta esan jardutea "zoriontsua naiz, zoriontsua naiz".
- TITIRITEROA Agian arrazoia du, sopra-re. Non dago jakituria? Agian liburuetan?
- NESKA Haizea liburuetatik pasa da; zerbait ikasiko zuen apaletako hautsak harrotzen. Agian hitzetan? Badakigu gizateriak gizateri izaten hasi zenetik esan dituen hitz guztiak haizeak eraman dituela.
- NESKA Litekeena da norbera izatea bere zaurien erantzule bakarra. Odolari korritzen uztea, korritzen doala begiratzea erremedio ona da, lasaitu eta baretu egiten du... pena lokartu egiten da, erresumina arindu... Sehaska-kanta. Arima beti da ume. Goazen, guztiok festara, goazen ikuskizuna ikustera, goazen, pasa eta ikusi!! ( )